

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 6184

*1472/2021 EBAZPENA, azaroaren 25ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako deialdiaren xede diren plazak zehazteko irizpideak ezartzen dituena.*

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2018ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez, Ente Publikoaren 2018ko ekitaldirako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen (EHAA 44. zk., 2019ko martxoaren 4a). Erabaki horren arabera, txanda irekian 1.083 lanpostu sartu ziren estatutupeko langile finko izateko deialdian. Aipatutako Erabakian adierazi zen, era berean, 2018ko Enplegu Publikoaren Eskaintza 2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzarekin batera gauzatuko zela, eta estatutupeko langile finko izateko eta barne-sustapeneko prozesuak batera egingo zirela, lehiaketa-oposizioaren sistemaren bidez.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko abenduaren 26ko Erabakiaren bidez, estatutupeko langile finko izateko Osakidetzako 2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deialdia onartu zen (EHAA, 12. zk., 2020ko urtarrilaren 20a). Erabaki horren bidez, 2.150 lanpostu sartu ziren txanda irekian, eta 302 lanpostu barne-sustapeneko hautaketa-prozesuen bidez betetzeko deialdia onartu zen. Era berean, Erabakian jasota utzi zen hautaketa-prozesuen arrazionalizazio- eta eraginkortasun-arrazoiengatik, 2018ko abenduaren 17ko Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartutako 2018ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari zegozkion lanpostuei 2019ko abenduaren 26ko Erabakian jasotakoak gehituko zitzaizkiela, eta estatutupeko langile finko izateko prozesuak eta barne-sustapeneko prozesuak batera egingo zirela, oposizio-lehiaketaren sistemari jarraikiz.

2020. urtean, Osasuneko Mahai Sektorialak negoziazio-prozesuari ekin zion Ente Publikoan egin beharreko Enplegu Publikoaren Eskaintza berria onartzeko. Prozesu horrek hainbat bilera ekarri ditu, baina alderdiak ez dira ados jarri.

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2018ko abenduaren 17ko Erabakiaren zortzigarren apartatuak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari ahalmena ematen dio deitu beharreko lanpostuak zehazteko ebazpena emateko. Bestalde, Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko abenduaren 26ko Erabakiaren zortzigarren apartatuak ahalmena ematen dio Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiari 2018-2019ko EPEa gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpenak emateko.

Hala, 2018ko abenduaren 17ko eta 2019ko abenduaren 26ko Erabakietan jasotako Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren agindua betetzeko, eta 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren hautaketa-prozesuaren deialdian jaso beharreko lanpostuak zehazteko, honako hau ematen da

#### EBAZPENA

Lehenengoa.– 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza txanda irekiko 3.233 lanpostuk eta barne-sustapeneko 302 lanpostuk osatzen dute.

Bigarrena.– Guztira, 3.535 plaza sartuko dira deialdian, erabaki honen eranskinean jasotakoa-ekin bat etorriz. Eranskin horretan, kategoria/lanpostu funtzional, lanbide-talde eta sarbide-txanda bakoitzean eskainiko den lanpostu kopurua zehazten da.

Hirugarrena.– Osakidetzaren 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartu beharreko lanpostuak zehazteko irizpideak honako hurrenkera honetan ezartzen dira:

### 3.1.– Barne-sustapenaren deialdian.

Barne-sustapeneko txandan sartu beharreko lanpostuak apartatu honetan zehazten den hurrenkeraren arabera hautatuko dira, 302 lanpostura iritsi arte:

1.– 2020ko abenduaren 31n aldi baterako barne-sustapenean betetako titularrik gabeko lanpostu hutsak. Lanpostuak hautaketa-prozesuan sartzeko irizpidea aldi baterako barne-sustapenaren antzintasuna izango da, hau da, denbora gehien daramatenetik gutxien daramatenetara.

2.– Beharrezkoa balitz, 2020ko abenduaren 31n titularrik eta okupatzailerik gabeko lanpostu hutsak. Lehenik eta behin, bete gabe denbora gehien daramaten lanpostu hutsak hartuko dira kontuan.

3.– Beharrezkoa balitz, 2020ko abenduaren 31n bitarteko langileek betetako titularrik gabeko lanpostu hutsak. Lanpostu horiek hautatzeko, lotura-data zaharrena hartuko da kontuan. Aipatutako antzintasuna zehazteko bitarteko langilearen lotura hartuko da kontuan, behin-behineko izendapenetik edota hasiera batetik bitartekoa izatea etenik gabe lanpostu funtzional horretan eta zerbitzu-erakunde edo zentro horretan.

4.– Beharrezkoa balitz, 2020ko abenduaren 31n Zerbitzu-eginkizunetan betetako lanpostu hutsak. Lanpostuak hautaketa-prozesuan sartzeko irizpidea Zerbitzu-eginkizunen antzintasuna izango da, hau da, denbora gehien daramatenetik gutxien daramatenetara.

5.– Beharrezkoa balitz, 2021eko azaroaren 11n Aldi baterako barne-sustapenean betetako titularrik gabeko lanpostu hutsak. Lanpostuak hautaketa-prozesuan sartzeko irizpidea Aldi baterako barne-sustapenaren antzintasuna izango da, hau da, denbora gehien daramatenetik gutxien daramatenetara.

Irizpide horiek adierazitako datan eragindako lanpostuei aplikatuko zaizkie, lanpostu horietan gerora egon daitezkeen aldaketak gorabehera.

Kategoria/lanpostu funtzional bakoitzaren barne-sustapeneko txandaren deialdian jasoko diren lanpostuen informazioa argitara emango da eskainitako kategoria/lanpostu funtzional bakoitzaren 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren oinarri espezifikoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren.

Hala izanik, deialdian jasoko den lanpostu kopurua identifikatuko da eta kopuru zehatza zehaztuko da kategoriaren/lanpostu funtzionalaren, zerbitzu-erakundearen, lantokiaren, antolaketa-unitate eta herriaren, lanaldi-erregimenaren eta hizkuntza-eskakizunaren arabera, derrigortasun-data adierazita, halakorik esleituta badago. Halaber, eskainitako lanposturen batean eskakizun osagarriren bat badago, hura ere zehaztuko da.

### 3.2.– Txanda irekiaren deialdian.

Txanda irekiaren deialdian sartu beharreko lanpostuak apartatu honetan zehazten den hurrenkeraren arabera zehaztuko dira, 3.233 lanpostura iritsi arte:

1.– Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko ziklo hauek amaitzean esleitu gabe geratzen diren lanpostuak eta esleipendunek hutsik uzten dituztenak (hau da, titularrik gabeko lanpostu

hutsak, beteta nahiz bete gade daudenak): 2020ko abenduko zikloa / 2021eko apirileko zikloa / 2021eko azaroko zikloa. Horiek hautatzeko honako hau hartuko da kontuan:

Esleitzen ez diren lanpostuak, bai eta esleipendunek hutsik uzten dituzten lanpostuak ere, Lekualdatze-lehiaketa amaitzean inork ez baditu betetzen, eskaintzan sartuko dira, hautaketarako lanpostu hauetatik hasita: inork bete gabe denbora gehien daramaten lanpostu hutsak.

Esleitzen ez diren lanpostuen kasuan, bai eta esleipendunek hutsik uzten dituzten lanpostuen kasuan ere, Lekualdatze-lehiaketa amaitzean betetzen badira, okupatzaileen antzintasun handieneko lotura-data dutenetik hasita egingo da hautaketa. Antzintasun hori zehazteko, langilea finkoa bada, lanpostu horretan dagoen langilearen lotura hartuko da kontuan. Lanpostua betetzen duena bitarteko langilea bada, aipatutako antzintasuna zehazteko, bitarteko horren lotura hartuko da kontuan, behin-behineko edo bitarteko izendapena jaso zuenetik, etenik gabe lanpostu funtzional horretan eta zerbitzu-erakunde edo zentro horretan.

2.– Beharrezkoa balitz, 2020ko abenduaren 31n titularrik eta okupatzailearik gabeko lanpostu hutsak. Lehenik eta behin, bete gabe denbora gehien daramaten lanpostu hutsak hartuko dira kontuan.

3.– Beharrezkoa balitz, 2020ko abenduaren 31n bitarteko langileek betetako titularrik gabeko lanpostu hutsak. Lanpostu horiek hautatzeko, lotura-data zaharrena hartuko da kontuan. Aipatutako antzintasuna zehazteko bitarteko langilearen lotura hartuko da kontuan, behin-behineko izendapenetik edota hasiera batetik bitartekoa izatea etenik gabe lanpostu funtzional horretan eta zerbitzu-erakunde edo zentro horretan.

4.– Beharrezkoa balitz, 2020ko abenduaren 31n zerbitzu-eginkizunetan betetako lanpostu hutsak. Lanpostuak hautaketa-prozesuan sartzeko irizpidea zerbitzu-eginkizunen antzintasuna izango da, hau da, denbora gehien daramatenetik gutxien daramatenetara.

5.– Beharrezkoa balitz, 2., 3. eta 4. irizpideak modu berean aplikatuko dira, dagokion kategorialanpostu funtzionalaren Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko zikloak (2020ko abenduko zikloa/2021eko apirileko zikloa/2021eko azaroko zikloa) behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean.

Ezarritako irizpideak 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deialdiko kategorialanpostu funtzional bakoitzean jasotako lanpostu kopuruaren arabera aplikatuko dira.

Txanda irekiko 1. puntuan adierazitako lanpostuak ezin izango dira ezein mugikortasun-prozesutan sartu.

Txanda irekiko 2., 3., 4. eta 5. puntuetako lanpostuei dagokienez, irizpideak eragindako lanpostuei aplikatzeko, kontuan hartuko dira aipatutako behin betiko barne-mugikortasuneko prozesuak eta Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko zikloak egitearen ondorioz lanpostu horietan egon daitezkeen aldaketak.

2018-2019ko EPEan eskaintzen diren kategorietan/lanpostu funtzionaletan txanda irekian sartzan diren lanpostuei buruzko informazioa arian-arian argitaratuko da horietako bakoitzerako, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko zikloetan eskainitako destinoez jabetzeko epea amaitu ondoren. Horrela, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren identifikatutako zikloetan sartutako kategorietan/lanpostu funtzionaletan eskainitako lanpostuen berri emango da, ziklo horiek amaitu ondoren.

Hala izanik, argitaratuko den lanpostuen informazioak txanda irekian sartuko den lanpostu kopurua identifikatuko du kategoriaren/lanpostu funtzionalaren, zerbitzu-erakundearen, lantokiaren,

antolaketa-unitatearen eta herriaren, lanaldi-erregimenaren eta hizkuntza-eskakizunaren arabera, derrigortasun-data adierazita, halakorik esleituta badago. Halaber, eskainitako lanposturen batean eskakizun osagarriren bat badago, hura ere zehaztuko da.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurreko apartatuan ezarritako irizpideak 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deialdiko kategoria/lanpostu funtzional bakoitzean sartutako lanpostu kopuruaren arabera aplikatuko dira.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko duten deialdiaren oinarriak jasotzen dituzten ebazpenak aldizkari horretan argitaratu aurretik edo aldi berean.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari; horretarako, hilabeteko epea egongo da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 25a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

## ERANSKINA

A1 Lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
A.1. Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak	Familia Medikuntzako FEM – LMAT	321	11
	Pediatriako FEM – LMAT	50	1
	Alergologiako FEM	5	
	Anatomia Patologikoko FEM	11	
	Kirurgia Orokorreko eta Digestio Aparatuko FEM	26	
	Ahoko eta Aurpegi Masailtako Kirurgiako FEM	4	
	Kirurgia Pediatrikoko FEM	4	
	Dermatologia Mediko Kirurgikoko eta Benereologiako FEM	8	
	Emergentzietako FEM	15	
	Endokrinologiako eta Nutrizioko FEM	8	
	Gaixotasun Infekziosoen Arloko FEM	6	1
	Hematologiako eta Hemoterapiako FEM	15	
	Etxeko Ospitalizazioko FEM	13	1
	Laneko Medikuntzako FEM	3	1
	Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko FEM	14	1
	Barne Medikuntzako FEM	47	5
	Prebentzio Medikuntzako eta Osasun Publikoko FEM	3	
	Nefrologiako FEM	10	1
	Pneumologiako FEM	15	
	Neurologiako FEM	17	
	Obstetriziako eta Ginekologiako FEM	18	
	Oftamologiako FEM	26	
	Onkologia Medikoko FEM	8	
	Otorrinolaringologiako FEM	15	
	Ospitaleko Pediatriako FEM	11	3
	Psikiatriako FEM	27	1

2021eko abenduaren 14a, asteartea

A1 Lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
	Haur Psikiatriako FEM	5	
	Erradiodiagnostikoko FEM	31	1
	Erreumatologiako FEM	6	
	Analisi Klinikoko FEMT	6	
	Ospitaleko Farmaziako FET	14	
	Psikologia Klinikoko FET	20	
	Farmaziako FT	5	1
	Odontologiako FT	6	
	Zainketa Aringarrien FEM	2	
	Epidemiologia Klinikoko FEM	2	
	Medikuntza Nuklearreko FEM	2	
	KSUko FEM	2	
	Biokimika Klinikoko FEMT	2	
	Immunologiako FEMT	2	
	Ospitaleko Erradiofisikako FEMT	3	
A.1. Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak, guztira		808	28

B1 lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
B.1. Diplomadun Sanitarioak	Emagina	44	11
	Osasun Mentaleko Erizaina	25	12
	Lan Osasuneko Erizaina	4	3
	Erizaina	802	28
	Fisioterapeuta	36	1
	Terapeuta Okupazionala	10	
	Optikan eta Optometriari Diplomaduna	8	
	Logopedian Diplomaduna	4	
B.1. Diplomadun Sanitarioak, guztira		932	55

2021eko abenduaren 14a, asteartea

C1 lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
C.1. Teknikari Espezialista Sanitarioak	Erradiodiagnostikoko Teknikaria	47	14
	Laborategiko Teknikaria	54	25
	Anatomia Patologikoko eta Zitologiako Teknikaria	7	
	Dokumentazio Sanitarioko Teknikaria	6	3
	Erradioterapiako Teknikaria	6	2
	Dietetikako Teknikaria	3	
	Audioprotesiko Teknikaria	1	
	C.1. Teknikari Espezialista Sanitarioak, guztira		124

D1 lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
D.1. Teknikari Laguntzaile Sanitarioak	Erizaintzako Laguntzailea	510	18
	Farmaziako Laguntzailea	18	5
D.1. Teknikari Laguntzaile Sanitarioak, guztira		528	23

A2 lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
A.2. Goi Mailako Teknikariak	Goi Mailako Teknikari Juridikoa	4	3
	Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Goi Mailako Teknikaria	8	4
	Informatikako Goi Mailako Teknikaria	9	1
	Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria	4	4
	Antolakuntzako Goi Mailako Teknikaria	10	7
	Administrazioko eta Kudeaketako Goi Mailako Teknikaria	10	6
	Ergonomiako eta Psikosoziologiako Prebentzioko Teknikaria	3	
	Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria	4	3
	Segurtasuneko eta Higieneko Prebentzioko Goi Mailako Teknikaria	5	
	A.2. Goi Mailako Teknikariak, guztira		57

2021eko abenduaren 14a, asteartea

B2 lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
B.2. Erdi Mailako Teknikariak	Gizarte Langilea	10	3
	Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Erdi Mailako Teknikaria	5	
B.2. Erdi Mailako Teknikariak, guztira		15	3

C2 lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
C.2. Administrazioko Teknikari Espezialistak	Administraria	33	26
C.2. Administrazioko Teknikari Espezialistak, guztira		33	26

C3 lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
C.3. Teknikari Espezialista Profesionalak	Sukaldaria	7	
	Informatikako Teknikaria	3	
	Elektromedikuntzako Instalazioetako Teknikaria	3	
	Instalazio Elektroetako Teknikaria	3	
	Giroitze Instalazioetako Teknikaria	4	
C.3. Teknikari Espezialista Profesionalak, guztira		20	

D2 lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
D.2. Administrazioko Teknikari Laguntzaileak	Administrazioko eta Erabiltzailearen Arretako Laguntzailea	303	50
D.2. Administrazioko Teknikari Laguntzaileak, guztira		303	50



2021eko abenduaren 14a, asteartea

D3 lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
D.3. Teknikari Laguntzaile Profesionalak	Emergentsietako Ibilgailuen Gidaria	11	
	Garraio Sanitarioaren Gidaria	13	1
	Zerbitzu Orokorretako Gidaria	10	
	Mantentze Lanetako Ofiziala	18	
D.3. Teknikari Laguntzaile Profesionalak, guztira		52	1

E1 lanbide-taldea			
Lanbide-taldea	Lanpostua	Txanda askea	Barne-sustapena
E.1. Langileak	Zeladorea	191	44
	Zerbitzuetako Langilea – Zerbitzu Orokorrak	170	
E.1. Langileak, guztira		361	44